

Arantxa Zubizarreta,

Zamalbideko begirale zaindaria gogoan

Mikel Ugalde



Arantxa Zubizarreta fede sakoneko ekintzailea

Arantxa, barka iezadazu gutun honen izenburu handiegitzat jotzen baduzu. Zeinen apala izan zaitugun jakinda, badakit ez dizula onik egingo. Baina nik hala ikusi izan zaitut gure artean.

Begirale izan zaitu Zamalbidek, bertako etxeak, auzokideak, familiak, gertaerak oso gogoan izan dituzulako, oso hurbiletik jarraitu dituzulako, zure komentutik auzoko bizitzan bete betean murgildurik bizi izan zarelako. Eta begirale izan zaitugun neurrian, arduraz ahalegindu zara zure ingurukoak babesten eta zaintzen.

Mundu zabaleko azkoitiarra

Jaiotzez, Arantxa, azkoitiarra zaitugu, 1920ko apirilaren 18an jaioa eta zazpi anai-arrebetan zaharrena. Bistan da zure familian kristau fedea era sutsuan bizi izan zenutela, izan ere ia anai-arreba guztiak erlijioso eta moja sartu baitzineten. Anaia bakarra ezkondu zen. Hemeretzi urte zenituela, Frantziskotar Mariaren Institutuan sartu zinen lehen urratsak Iruñean eta Portugalen eman zenituelarik. Erizaintza lanetan jarraitu zenuen azken lurralde horretan 1961an Birmaniara bidali zintuzten arte. Legenardunak zaintzen aritu eta gero, arazo politikoak tarteko, Espainiako Trilloko ospitalera zoaz bertan ere legenardunak zaintzera. Espainian 3 urte egin eta gero, Mozambiquen 6 urteko luzea afrikar behartsuaren zerbitzuan. Azkenik, Vallecasko herritarren esanetara 5 urte egin eta gero, Zamalbidera etorri zinen.

Eman eta zabaldu duzu

Gernikako Arbolari bertsotan eskatu izan zaiona ongi bete izan duzu, Arantxa, fruitua oparo zabaldu izan baituzu bizi izan zaren toki guztietan. Errenterian eginiko lana horren lekuko. Gure artean igaro dituzun 30 urte luzetan hamaika aldiz bisitatu izan dituzu Zamalbideko baserriak, baita ezinduei Jauna oparo banatu ere. Auzoko norbait ospitalean aurkitzen bazen saiatzen zinen, bai, ahalik eta lasterrren bisitatzen. Duela egun batzuek, emaztea eta biok Zamalbidetik herrirantz gentozela, autobusaren zain zegoen emakumea autoan hartu genuen eta honela mintzatu zitzaigun bat-batean:

“Bai, Arantxa, ona zen. Ikusi egin behar zen gure ama gaizkitu zenean nola portatu zitzaigun! Harekin zorretan gelditua naiz”.

Auzoan lehenengo junta osatu zenean bertan zeunden, Arantxa, auzoaren egoera hobetzeko asmoz. Maitea zenuen barria eta oso gustuko bertako San Isidro baserritarren zaindariaren jaiak. Arretaz eta ilusioz zuzentzen zenuen meza eta gogotsu bertsolarien saioa entzuten. Zaharren omenez eginiko bazkarian ere pozik agertzen zinen.

Gabonetako Jaiotza bihotzean

Ikusgarriak izan dira, Arantxa, Zamalbideko elizan urtez urte ipini izan dituzuen Jaiotzak. Zu zeu langilea izanik, besteak ere lanean jartzen ez zinen makala. Horrela, auzokideen laguntzarekin ospe handia izan ohi duen Jaiotza jartzen zenuten. *“Gure Jaiotza, Zamalbideko estiloan eginikoa da”* aitortu digu komentuko zure lagun batek.

Jaiotzak egiteko zaletasunak eraginda, sarritan joan ohi zinen goizero Donostiara Belenisten Elkartera. Zure lanak ikusi izan ditugu Donostian antolatzen den erakusketan ere.

Hunkigarria izan zen 2004an elkarteak *“Urteko Belenista”* izendatu zintuen egun hura. Zamalbideko eliza jendez gainezka, bertako eta kanpotik etorriak. Hamaika zorion mezu jaso zenuen egun hartan. Orain, zerutik ikus dezakezun bezala, zuk ereindako haziak emaitza onak eman ditu eta zuk abiarazitako Jaiotzak badu jarraipenik auzoan.



Bakezalea

Gure herriak bizi duen egoerak sumintzen zintuen. Indarkeriaren eraginez familiaren bat sufritzen zuela ikusiz gero, saiatzen zinen hurbiltasuna eta elkartasuna helarazten. Maite zenuen Euskal Herria eta herritarrak, maite zenuen euskara eta oso sakonean bizi zenuen bake gogoa. *"Bakea lortzen ez dugun bitartean bakearen alde otoitzean eta lanean jarraituko dugu"* errepikatu ohi zenuen sarritan. Nonbait bakearen aldeko hitzaldi edo otoitzaldia baldin bazen bertara azalduko zinen. Ostiral Santuko Gurutze Bidea bakearen aldeko hausnarketa eta bake konpromisoa bihurtzen zenuen. San Isidro egunean ere gogotsu abesten zenuen *"Bakearen urtxoa"* Labegueriren kanta. Giza eskubideetan, egian, justizian eta maitasunean oinarritutako bakea amesten zenuen. Zure izarren argiak lagun gaitzala bakebidea jarraitzen.

Arantxaren nortasuna

Zure komentuko ahizpek zure fede sakona azpimarratu izan dute. Txikitatik familian jasotako fedea barneratu eta heziz eta haziz bizi izan duzun sinesmen sendoa. Irekia zinen, auzoko behartsuei laguntzeko prest egon ohi zinen eta, arestian esan bezala, premian zegoenari laguntzeko mugarik gabea. Adimenez azkarra eta harreman errazekoa eta aldi berean oso maitatua.

Maitasun hori agerian nabarmentzen zen 2008ko otsailaren 29an hil eta ondoren zure komentuaren ondoan, eginiko hiletan. Zure anaia buru zela sei apai-
zek emandako mezan esker oneko hitzak baino ez genituen entzuten. Gazte dantzariaren *"Agurra"*k ere zirrara eragin zigun. ■

Umetatikan landu zenuen
Jaungoikoaren fedea,
behartsuentzat bizi zinen ta
herri hau guztiz maitea.
Zauden zerutik Arantxa lagun
gutaz oroitu zaitea,
lagun zaiguzu denon artean
lortu dezagun bakea.

